

Euskal AEko hotel-establezimenduetako ostatu-gauek, 2023ko otsailean, % 25,9 egin dute gora

Eguneko batez besteko tarifak % 12,1 egin du gora, aurreko urteko otsailaren aldean

2023ko otsailean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 18,5 egin dute gora, eta ostatu-gauek, % 25,9, urte arteko terminoetan, Eustaten datuen arabera. 212.846 sarrera erregistratu dira eta 401.066 ostatu-gau, ondorioz.

Sarrera guztien % 32,7 eta ostatu-gauen % 33,9, 2023ko otsailean, atzerritarrenak izan dira; sarreraren kasuan, % 32,9ko igoera izan da eta, ostatu-gauenean, % 41,7koa. Estatuko jatorriko sarrera eta ostatu-gauen kopuruak, bestalde, gora egin du, urte artean, % 12,6 eta % 19,2, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. Otsaila 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2023/02	m/m-12 (%)	2023/02	m/m-12 (%)	2023/02	2022/02
EUSKAL AE	212.846	18,5	401.066	25,9	1,88	1,77
Estatukoak	143.314	12,6	265.161	19,2	1,85	1,75
Atzerritarrak	69.532	32,9	135.905	41,7	1,95	1,83
Araba/Álava	27.814	14,1	59.983	29,6	2,16	1,90
Estatukoak	21.824	11,0	44.200	17,9	2,03	1,91
Atzerritarrak	5.990	26,8	15.783	79,4	2,63	1,86
Vitoria-Gasteiz	22.186	18,1	50.805	34,8	2,29	2,01
Bizkaia	97.467	28,8	185.800	39,6	1,91	1,76
Estatukoak	68.206	20,3	125.806	30,3	1,84	1,70
Atzerritarrak	29.261	54,3	59.994	64,3	2,05	1,93
Bilbao	70.976	31,8	135.535	46,8	1,91	1,71
Gipuzkoa	87.565	10,0	155.283	11,6	1,77	1,75
Estatukoak	53.284	4,6	95.155	7,5	1,79	1,74
Atzerritarrak	34.281	19,7	60.128	18,8	1,75	1,77
Donostia / San Sebastian	58.326	10,2	100.661	12,0	1,73	1,70

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Marboaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Arabari, 27.814 sarrera eta 59.983 ostatu-gau erregistratu dira; alegia, aurreko urteko otsailean baino % 14,1 eta % 29,6 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, hazkuntza % 28,8koa izan da sarreretan eta % 39,6koa, ostatu-gauetan; guztira, 97.467 sarrera eta 185.800 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 2023ko otsailean, 87.565 sarrera izan dira, 2022ko otsailean baino % 10,0 gehiago, eta 155.283 ostatu-gau, aurreko urteko hilabete berean baino % 11,6 gehiago.

Hiriburuka, sarrera kopuruak % 31,8 egin du gora Bilbon, % 18,1 Vitoria-Gasteizen eta % 10,2 Donostian. Antzera, ostatu-gauen igoera, aurreko urteko otsailarekin alderatuta, % 46,8koa izan da Bilbon, % 34,8koa Gasteizen eta % 12,0koa Donostian.

2023ko otsaileko batez besteko egonaldia 1,88 egunekoa izan da Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2022ko hil berekoa baino handiagoa, 1,77 egunekoa izan baitzen.

Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldi osoari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Otsaila 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/02	p.p. *	2023/02	p.p. *	2023/02	m/m-12 (%)	2023/02	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	44,7	6,4	55,5	8,6	76,89	12,1	42,70	32,6
Araba/Álava	44,9	6,5	58,7	8,2	70,06	4,2	41,11	21,2
Vitoria-Gasteiz	46,8	7,3	63,0	9,2	62,84	5,0	39,57	23,0
Bizkaia	43,8	9,7	55,8	13,0	78,30	13,8	43,71	48,3
Bilbao	49,0	13,1	61,2	17,7	84,63	15,9	51,75	63,0
Gipuzkoa	45,8	2,4	54,0	3,3	77,79	13,1	42,01	20,4
Donostia / San Sebastián	48,3	1,6	54,5	2,4	87,35	11,6	47,61	16,9

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Martxoaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2023ko otsaileko okupazio-maila, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 44,7koa izan da, eta % 55,5ekoa, gelen arabera neurtuz gero. 2022ko otsailarekin alderatuta, ehuneko 6,4 eta 8,6 puntu areagotu dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua (komuna duen logela bikoitzari aplikatua, soilik ostatu-erregimenean), Euskal AEn, 76,89 eurokoa izan da 2023ko otsailean; alegia, % 12,1 areagotu da, aurreko urteko otsailaren aldean. Bizkaiaren kasuan, 78,30 eurokoa izan da ADRa; Gipuzkoan, 77,79 eurokoa, eta, Araban, 70,06 eurokoa. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 87,35 eurokoa izan da Donostian, 84,63 eurokoa Bilbon eta, azkenik, 62,84 eurokoa Vitoria-Gasteizen.

RevPar edo hileko gela eskuragarriko diru-sarrerak, Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 42,70 euro izan dira 2023ko otsailean, aurreko urteko hil berean baino % 32,6 handiago.

Informazio-oharra

Hotelen ETH estaldura % **94,7**koa izan da 2023ko otsailean. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismo-datuaren esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62